(7)

**Esp./Expediente: 2020PATR0002** **HP240601**

**Gaia:** Ama Xantalen udal egoitza eta eguneko zentroa dauden udal higiezina Gipuzkoako Foru Aldundiari doan lagatzea

**En relación con** la cesión gratuita a la Diputación Foral de Gipuzkoa del inmueble de propiedad municipal en donde se ubica la Residencia municipal Ama Xantalen y el Centro de día.

**Egitateak**

**Resultando los siguientes hechos:**

- Ama Xantalen udal egoitza eta eguneko zentroa dauden higiezinaren jabea da Irungo Udala. Eguzkitzaldea kaleko 1. zenbakian dago higiezina, eta, Irungo Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioan, 14 matrikula zenbakia du, 1. epigrafean, ondasun higiezinei buruzkoan. "Jabetza publikoko ondasun – zerbitzu publiko" kalifikazioa du, eta Irungo Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, 1.858. liburukian, 1.422. liburuan, 57. folioan (1. eta 2. inskripzioak), 61.974 zenbakia duela.

-Que el Ayuntamiento de Irun es propietario del inmueble destinado a Residencia Ama Xantalen y Centro de día sito en c/Vega de Eguzkiza nº 1 que figura con el número de matrícula 14 en el Epígrafe 1º relativo a bienes inmuebles del Inventario de Bienes y Derechos del Ayuntamiento de Irun con la calificación de bien de dominio público-servicio público, estando inscrito en el Registro de la Propiedad de Irun al Tomo 1858, Libro 1422, folio 57, Inscripciones 1ª y 2ª, Finca nº 61974.

- 2020ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran, besteak beste, erabaki hauek onartu zituen Irungo Udalak: "*1. Ama Xantalen zentroan egoitza zerbitzuak eta adinekoentzako eguneko zentroko zerbitzuak emateko eskumenaren erabilera Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualda dakion onartzea, Udalak kudeaketarako erabili izan dituen baliabideak barne.*

*2. Eskualdaketaren baldintzak ezartzen dituen hitzarmena onartzea, espedientearen barruko dokumentuaren arabera*
*3. Alkateari aipatutako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea*"

-Que el Ayuntamiento de Irun en sesión plenaria celebrada en fecha 31 de enero de 2.020 adoptó, entre otros, acuerdo de "*1º.- Aprobar el traspaso a la Diputación Foral de Gipuzkoa del ejercicio de la competencia para la prestación de los servicios residenciales y de centro de día para personas mayores del centro Ama Xantalen, que incluye la de los medios con los que el Ayuntamiento viene llevando a cabo esa gestión.*
*2º.- Aprobar el convenio en el que se determinan las condiciones del citado traspaso, según documento que obra en el expediente.*
*3º.- Facultar al Alcalde para la firma del citado convenio.*

**Argudioak:**

**Considerando los siguientes argumentos:**

- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezartzen duen eskumen banaketaren arabera, "foru aldundien gizarte zerbitzuei dagokie bazterketaren, mendetasunaren edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzuna emango dieten bigarren mailako arretako

- Que conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, la provisión y prestación de los servicios sociales de atención secundaria que atienden a las necesidades derivadas de las situaciones de exclusión, dependencia o

gizarte zerbitzuak eskaintzea eta betetzea". Bada, horrelako zerbitzuen barruan daude "adinduentzako egoitza zentroak" eta "autonomia mugatuak eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzu edo zentroak".

desprotección, entre los que se encuentran los centros residenciales para personas mayores y los servicios o centros de día para atender a necesidades derivadas de limitaciones en la autonomía, se garantizará desde los servicios sociales forales, de acuerdo con la distribución competencial prevista en la citada Ley.

- Legezko xedapen hori eta Ama Xantalen zentroan egoitza zerbitzuak eta adinekoentzako eguneko zentroko zerbitzuak emateko eskumenaren erabilera Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatzeko hitzarmena betetze aldera –Irungo Udalak 2020ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran onartu zen hitzarmen hori–, beharrezkoa da Ama Xantalen udal egoitza eta eguneko zentroa dauden udal higiezina Gipuzkoako Foru Aldundiari doan lagatzea.

-Que al objeto de dar cumplimiento a dicha previsión legal y, al Convenio de traspaso a la Diputación Foral de Gipuzkoa del ejercicio de la competencia para la prestación de los servicios residenciales y de centro de día para personas mayores del centro Ama Xantalen aprobado en sesión plenaria de fecha 31 de enero último, es preciso proceder a la cesión gratuita a la Diputación Foral de Gipuzkoa del inmueble de propiedad municipal en donde se ubica la Residencia municipal Ama Xantalen y el Centro de día.

- Kasu honetan, jabari publikoko aldaketa subjektiboa gertatzen da Irungo Udalaren titulartasuneko jabari publikoko ondasunak Gipuzkoako Foru Aldundiari doan lagata. Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 71. eta 72. artikuluen arabera eta Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 56. artikuluaren arabera, jabari publikoko aldaketak ondasun bat jaregitea dakar, eta, aldi berean, ondasun hori beste administrazio publiko batera lotzea, baina ez dakar "jabari publikoko ondasun" kalifikazioa aldatzea, baizik eta ondasunaren titulartasuna duen entitatea aldatzea.

-Que en el presente supuesto se produce una mutación demanial subjetiva a través de la cesión gratuita de bienes de dominio público de titularidad del Ayuntamiento de Irun a la Diputación Foral de Gipuzkoa. Como recogen los art. 71 y 72 de la ley de Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas y el art. 56 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi la propia mutación demanial, produce la desafectación de un bien, con simultánea afectación del mismo, como el presente supuesto, a otra Administración Pública, no produciendo la alteración de su la calificación como bienes de dominio público, sino la entidad que ostenta la titularidad de los mismos.

Irungo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, Ama Xantalen Egoitzaren eta Eguneko Zentroaren kudeaketa eskualdatzeari buruzkoa, Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020ko ekainaren 23an sinatu zuten.

El convenio entre el Ayuntamiento de Irun y la Diputación Foral de Gipuzkoa relativo al traspaso de la gestión de la Residencia Ama Xantalen y del Centro de día, ha sido suscrito por el Ayuntamiento y la Diputación Foral de Gipuzkoa

en fecha 23 de junio de 2.020.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea eta Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretua **ikusita**,

**Visto** lo dispuesto en la Ley 12/2008, de Servicios Sociales, y, en el Real Decreto 1372/1986, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Behin Ogasuneko, Garapen Ekonomikoko, Giza Baliabideetako, Informazioaren Gizarteko, Partaidetzako eta Auzoetako Informazio Batzordeak irizpena eman ondoren, **erabaki hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:**

Una vez dictaminada por la Comisión de Hacienda, Desarrollo Económico, Recursos Humanos, Sociedad de la Información, Participación y Barrios, **se eleva al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:**

***1. Ama Xantalen udal egoitza eta eguneko zentroa dauden higiezina Gipuzkoako Foru Aldundiari doan lagata gertatzen den jabari publikoko aldaketa subjektiboa hasieran onartzea – Eguzkitzaldea kaleko 1. zenbakian dago higiezina, "jabetza publikoko ondasun – zerbitzu publiko" kalifikazioa du, eta 61.974 zenbakiko finka da Jabetza Erregistroan–, Ama Xantalen egoitza eta eguneko zentroaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatzeko onartutako hitzarmena betetzearren –Irungo Udalak 2020ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran onartu zen hitzarmen hori–, baldintza hauetan:***

***1º.-Aprobar inicialmente la mutación demanial subjetiva a través de la cesión gratuita a la Diputación Foral de Gipuzkoa del inmueble destinado a Residencia Ama Xantalen y Centro de día sito en c/Vega de Eguzkiza nº 1, calificado como bien de dominio público-servicio público, Finca registral nº 61974, en cumplimiento y conforme a lo dispuesto en el Convenio aprobado por este Ayuntamiento en sesión plenaria de fecha 31 de enero de 2.020 para el traspaso de la gestión de la Residencia Ama Xantalen y el Centro de Día a la Diputación Foral de Gipuzkoa, y en las siguientes condiciones:***

***- Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte zerbitzuak emateko atxikiko du ondasuna, eta ezingo du erabili beste helburu batzuetarako. Eraikinaren egungo erabilera (adinekoentzako egoitzatarako eta eguneko zentrotarako erabilera) aldatzeko eta gizarte zerbitzuen esparruko beste erabilera bat ezartzeko, Irungo Udalaren adostasuna beharko du.***

***- La Diputación Foral de Gipuzkoa adscribirá el bien a la ejecución de servicios sociales, sin poder destinarlo a otros fines distintos. El cambio del uso actual del edificio, esto es, el de residencia de personas mayores y el de centro de día, a otro uso enmarcado dentro de la esfera de los servicios sociales, precisará de la conformidad del Ayuntamiento de Irun***

***- Ondasuna aurreko atalean adierazitakoaz beste helburu baterako atxikitzea, Irungo Udalaren adostasunik gabe eraikinaren egungo erabilera aldatu eta gizarte zerbitzuen esparruko beste erabilera bat ezartzea eta eraikinean zerbitzu egiteari uztea Irungo Udalak lagatako ondasuna (eta bere jabetza eta osagarri guztiak) itzularazteko prozedura hasteko arrazoi nahikoak izango dira, zenbat denbora igaro den***

***-La adscripción del bien a otros fines distintos del expresado en el apartado anterior, el cambio de uso dentro de la esfera de los servicios sociales sin conformidad municipal o el cese de la actividad en el mismo serán causas suficientes para que el Ayuntamiento de Irun inicie el procedimiento de reversión del bien cedido, con todas sus pertenencias y accesorios, cualquiera que sea el tiempo transcurrido.***

*gorabehera.*

*- Lagatzen den higiezina zertarako lagatzen den, baldin eta horretarako erabiltzeari uzten bazaio, udal ondarera itzuliko da, automatikoki eta eskubide osoz, zenbat denbora igaro den gorabehera.*
*- Lagatako ondasuna bere jabetza eta osagarri guztiak barne itzuliko da udal ondarera.*

*- El inmueble cedido revertirá automáticamente de pleno derecho al Patrimonio Municipal en caso de cesar el destino que es causa de la presente cesión, cualquiera que sea el tiempo transcurrido.*

*-El bien cedido revertirá, en su caso, al Patrimonio Municipal con todas sus pertenencias y accesiones.*

*2. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea berau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 egun baliodunean eta, epe horretan aurkako alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtzea.*

*2º.- Someter el anterior acuerdo a información pública por un plazo de 30 días hábiles desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, deviniendo definitivo en caso de que en este plazo no se presenten alegaciones contra el mismo.*

*3. Gipuzkoako Foru Aldundiari (Ogasun eta Finantza Departamentuko Udalekiko Konpromiso eta Laguntza Zerbitzuari) erabaki honen 1. puntuko erabakiaren berri ematea, Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 110. artikuluaren ondorioetarako.*

*3º.- Dar cuenta del acuerdo recogido en el punto 1º del presente acuerdo a la Diputación Foral de Gipuzkoa (Departamento de Hacienda y Finanzas-Servicio de Compromisos y Asistencia Municipal), a los efectos de lo dispuesto en el artículo 110 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.*

*4. Alkate-udalburuari eskualdaketa formalizatzeko beharrezkoak diren dokumentuak (publikoak eta administratiboak) sinatzeko ahalmena ematea.*

*4º.- Facultar al Alcalde-Presidente para la suscripción de cuantos documentos, públicos o administrativos, sean necesarios para la formalización de la transmisión.*

*Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu eskualdaketak eragiten dituen gastuak.*

*Los gastos derivados de ésta transmisión se abonarán por la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

Erabaki honek amaiera emango dio administrazio-bideari behin informazio publikorako epea bukatzean, erabakiaren aurka alegaziorik aurkezten ez bada. Orduan, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko Auzi-errekurtsoaren aurretik, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, edo bestela, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian zuzenean impugnatu daiteke, erabaki honen berri ematen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean, bidezkotzat jotzen den beste edozenez gain.

El presente acuerdo será definitivo en vía administrativa, una vez transcurrido el plazo de información pública previsto sin que se efectúen alegaciones contra el mismo. En tal caso podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Irun, 2.020ko uztailaren ---- (e)an / Irun, a .... de julio de 2.020

EKONOMIA ETA OGASUN ARLOKO ORDEZKARIA,
EL DELEGADO DE ÁREA DE ECONOMÍA Y HACIENDA.
Sna./Fdo.: Miguel Angel Páez Escamendi